

7 zirkuito

Bakantzak euskoz  
**Vacances  
en  
Eusko**

Zure  
bakantzak  
euskoz gozatu

eta trantsizio  
ekologikoan  
parte har ezazu!

# Eta zure asteburua euskoz pasatzen bazenu?

**Euskoa, Ipar Euskal Herriko tokiko moneta da**, 2018az geroztik Europako handiena. Frantzian berean, 80 moneta osagarri inguru dira, bakoitza lurralde jakin batean bakarrik erabiltzen dena, eta 2014ko «Hamon» legeari esker ezagupen bat dute. **Ekonomiaren birkokatzea, zirkuitu laburren garatzea, tokiko ekonomiaren babestea eta trantsizio ekologikoaren bizkortzea dute helburu.**



Bankako amuarrain larruzko larrukia - 7. zirkuitoa  
Bertrand Lanneau argazki eskubidea

## Nola parte hartu?

Bakantzetan zirenean, **Ipar Euskal Herria bultzatzen duen dinamikan parte hartzea proposatzen dizugu.** Horretarako, bakantziarrentzat pentsatua izan den bakantzak euskoz kontu bat ideki behar duzu. Biziki erraza da:

1. 5 minutuz, ideki kontu bat [bakantzakeuskoz.org](http://bakantzakeuskoz.org) helbidean. Zure nortasun agiriaren kopia edo argazki bat besterik ez duzu behar.
2. Zure banku kartaren bidez, gasturik gabe, zure kontuan sosa sartu.
3. Google Play edo AppStore bidez euskopay ordaintzeko aplikazioa telekargatu. Orain, zure mugikorrekin, Eusko sareko ehunka profesionalen kutxan instalatua den Euskopay QR Kode karta eskaneatuz ordain dezakezu.

Garagardogile, eskulangile, laborari, merkatari, mendiko gida edo Eusko sarean engaiatutako beste profesional batzuen ezagutzera joateko, zure bakantzak euskoz kontutik irakur dezakezun **plan onak eta sareko aurkitegiari fidatu, edo gida honetan proposatzen dizkizugun %100 euskotan diren 7 zirkuituetariko bat segitu!**

Bakantzen bukaeran, errazki kontua hesten ahalko duzu, eta erabili ez dituzun euskoak itzuliko dizkizugu. Anartean, Euskal Herrian ziren bitartean, Euskoz gastatzen duzun euro bakoitza, lurraldean egonen dela eta tokiko ekonomia sustatuko duela segur zira, eta horren bidez zirkuitu laburren garatzea ahalbideratzen duzu, ingurumenarengan dugun eraginaren murrizteko!

**Sartu ondoko webgunean:  
[vacanceseneusko.org!](http://vacanceseneusko.org)**

## Nola ibiltzen da?

Euskoa 2013az geroz erabiltzen da billete bidez, eta 2017az geroz, Euskal Moneta - Monnaie locale du Pays Basque elkarteak kudeatzen dituen kontu numerikoen bidez. Edonor kidetzen ahal da euro bat pagatuz hilabetean, eta ondotik euroak euskoz alda ditzazke (eusko 1 = euro 1) eta kide diren 1000 saltegi, laborari, artisau, ETE, elkarte edo zerbitzu publikoetan erabil ditzazke, 1,8 milioi eusko zirkulazioan dira 2020ko udan, eta beste hainbeste euro arduratsuak diren bankuetan ezarriak izan dira (Nef eta Crédit coopératif bankuetan).


Euskoak, trukeak birtokiratzen ditu manera konkretuan: gero eta profesional gehiago Eusko sarean sartzen dira, eta horietariko %56ak, gutxienez tokiko hornitzaile berri bat hartu zuten beren bezeroengandik jasotako euskoen berrerabiltzeko. Horrela ditu Euskoak egunero zirkuitu laburrak garatzen!

*Vacances  
en  
Eusko*

## Zenbat gosta da?

Bakantzak euskoz kontuak 2€ balio ditu, gehienez bi hilabeteko epearekin. Ez da beste kargurik gehituko. Ardura Ipar Euskal Herrira etortzen bazira, urtean 12€-ren truke eusko kontu bat ideki dezakezu [euskalmoneta.org](http://euskalmoneta.org) helbidean.

# Nafarroa Behera ezagutu



Donibane Garazitik harat, Nafarroa Behera ezagutzera joan, bere mahastiak, ekoizle biologikoak eta pilota inimizioa egin!

Eskualde honetako saltegi eta aktibitate guziak atzeman [nafarroabehera.bakantzakeuskoz.org](http://nafarroabehera.bakantzakeuskoz.org)

Vacances en Eusko

**Nafarroa Beherea ezagutu**, Bixente Oyhenart mendi gidarekin. Aktibitate desberdinak proposatzen ditu eta zure nahi eta ahalei egokituko da : mendi-ibiliak, eskalada, orientazio-lasterketak, trail-ak, baina ere pilota inimizioak, piknika, ibilaldi gastronomikoak.

06 88 92 39 73 - [www.zeharka.com](http://www.zeharka.com)

**Bergers de St-Michel-eko gasnategitik pasatu.**

Ossau-Irati sormarkako ardi gasna salmenta (esne gordin eta biologikoa).

*Elizaita auzoa - 05 59 37 23 13.*

**Donibane Garazi euskoz ezagutu** nahi baduzu, 12 orriko « merkatu, erosketa eta ur lasterrak Donibane Garazin » zirkuitura joan eta helbide onak aurkitu.

**Dastaketak** (arno eta gasna) **Bordaxuria Arno biologiko ekoizlearen etxaldean hitzordua hartu**

(Irulegiko sormarka) - 06 86 56 66 94

## Eta billeteak?

Eusko billeteak ukan nahi badituzu, turismo bulegoetan diren 20 edo 50€-ko bakantzak euskoz gutun bat eros dezakezu, edo, zure bakantzak euskoz kontuan, 30 Eusko aldaguneetan ([zerrenda.euskalmoneta.org](http://zerrenda.euskalmoneta.org)) hautatutako zenbatekoaren alda egin dezakezu.



# Itzuli t tipi bat Xiberoan



Euskal Herriko zazpi probintzietariko bat da. Bere ondare historikoa, kultur bizitasuna, baita mendiko paisaia zoragarriak ezagutu.



Eskualde honetako saltegi eta aktibitate guztiak atzeman [xibero.bakantzakeuskoz.org](http://xibero.bakantzakeuskoz.org)

Vacances  
en  
Eusko

## 1 EGUNA

**Unesco munduko ondarean sailkatua den eliza bisitatu.** Bisita audio-gida bidez egin daiteke, parte hartze librean.

**Herriaren itzulia egin eta Auberge du Lausset jatetxean jan,** tokiko ekoizpenekin sukaldatzen den helbide biziki ona! *Herri erdian - 05 59 66 53 03*

**Maulegañeko karrketan ibili,** gazteluraino igan, eta herri barnara jautsi.

**Don Quichosse espartinegile museo-tailerra bisitatu,** espartinak hastetik buru eskuz ekoizten dituzte! *Fabrika-denda. Jeanne d'Arc karrika - 05 59 28 28 18*

**Gamereko gesala ur termalak ezagutu.** Pilota plazatik abiatu eta seinaletika horiak segitu. *20 minuta.*

**Atharratzeko turismo bulegoan den Euskal mitologiari buruzko lekua bisitatu,** dendan ekoizpenak proposatzen dituzte.

**Jan edo edan Piellenia hotel-jatetxean.** *Herri barna - 05 59 28 53 49*

**Vival janari dendan piknika prestatu biharamuneko ibilaldiarentzat.**

**Ibilaldia Holzarteko zubiraino joan jina.** Larraine azpian den Logibar ostatutik abiatu. *Oren bat eta erdi.*

**Logibar jatetxean jan edo piknikatu ibilaldi denboran.** *Logibar hauzoa, D26 - 05 59 28 61 14*

**Chalets d'Iraty - Iratiko mendi etxeetara joan (Europako pagadi haundiena).** Mendiko bizikleta alokatze, oinezko ibilaldi, ttattola alokatze, akanpaleku, tokiko ekoizpen salmenta... *D19 - 05 59 28 51 29*

## 2 EGUNA

# Ezpeleta inguruetan



Egun gormant eta kirolaria Ezpeleta inguruetan. Eguna hasi ibailetako sentsazio azkarrekin, ur ertzean piknikatu, eta leku onak eta jatetxe bikainak ezagutu, moltsa guztiendako...

Eskualde honetako saltegi eta aktibitate guztiak atzeman [ezpeleta.bakantzakeuskos.org](http://ezpeleta.bakantzakeuskos.org)

Vacances  
en  
Eusko

**Piknika prestatu.** Berterreix okindegia eta Elika ekoizle dendan.

1

**Ur biziko aktibitateak Evasion 64-rekin:** kanoe-kayak, rafting, hidrospeed... *Errola bidexka* - 05 59 29 31 69

2

« Zubi xuri »-ko ondartzan piknikatu, *Errubi basearen gibelean*.

3

**Ezpeletan gaindi ibili,** tokiko ekoizpenak erosi Ezpeletako Izarran. Karrika nagusia, 375 - 05 59 44 86 65

4

**Arrobio garagarno biologiko eta artizanalaren ekoizpen sekretuen ezagutzeko,** Ezpeletako garagamotegi artizanalera joan. *Plazako karrika*, 180 - 06 16 90 07 22

5

**Trago bat edan, pintxoak edo azitak manatu Aldaburua ostatu-jatetxean.** *Herriko etxeko plaza* - 09 83 94 27 71

6

**Michelin gideko izar bat duen Choko ona jatetxean afaria gozatu.** *Harrieta bidexka*, 37 - 05 59 15 71 65

7

**Euskadi jatetxean lekuko ekoizpenekin egin plater tradizionalak dastatu.** *Karrika nagusia*, 285 - 05 59 93 91 88

8

**Lo egiteko, Bergara hotela,** 2 eta 6 pertsona arteko ganbara eta apartamenduak. *Karrika nagusia*, 17 - 05 59 93 90 58

9

**Etche Kat arrotz logelak,** gosaria barne. *Abartaxipikoborda karrika itsua*, 152 - 07 66 53 99 47

10

# Hazparne eskualdean kurri



Asteburu kirolari, kultural eta gastronomikoa, Hazparne inguruetan!

Oinez edo zaldiz, gaztelu edo garagardotegietatik pasatuz ezagutzekoa den Euskal Herriko xokoa! Beren lurraldea biziarazteko engaiatuak diren gida, laborari eta ostalerren ezagutza ederrak egin.

Eskualde honetako saltegi eta aktibitate guztiak atzeman [hazparne.bakantzakeuskoz.org](http://hazparne.bakantzakeuskoz.org)

Vacances  
en  
Eusko

1 EGUNA

**Piknika presatu** erosketak Lurra denda biologikoan eta Zarea ekoizle dendan eginez.

1

**Zaldizko ibilaldiak Urkodea-rekin.** *Zelai auzoa - Urkodea etxaldea - 05 59 29 15 76 - 5 oren.*

2

**Ursuia kaskoan ibilaldia,** abiatzea Urkoi-tik. 4 oren.

3

**Hazparneko Etxeko Bob's Beer garagarnotegi artisanala ezagutu.** Bisitak dohainik, dastaketak, eta batzuetan kontzertuak udan... 05 59 29 70 39

4

**Kipett garagarnotegi ttipiko garagarno goxoak ezagutu.** 06 60 03 41 18

5

**Xuriatean afaldu,**  
*Francis Jammes karrika, 4 - 05 59 29 60 76*

6

**Etchebarne hotel jatetxean lo egin.**  
*Herriko plaza - 05 59 29 62 63*

7

**Garro gaztelu inguruan ibili,** eta Régis Pochelu harrizko zizelkariaren lana ezagutu.

8

**Aiherrako Xedarria etxaldearen bisita,** Ossau-Irati sormarkako gasna, idikia, ahatsekia, zerriki kontserbak. *Chedarria - 06 30 33 47 05*

9

**Etchebarne hotel jatetxean bazkaldu.**  
*05 59 29 62 63*

10

**Claire Lohiague Argibiliko gidarekin,** Isturitzeko eta Otsozelaieko harpeak eta Bastida bisitatu, pilota inimizioa egin, pausa gurmanta bat egin...  
*06 85 35 96 30 - 5 oren.*

11

**Antxondoko Borda etxaldean lekuko ekoizpen onak erosi:** Ossau-Irati sormarkako gasna, Itsasuko gerezia, etxeko urdaitegia eta beste etxeko ekoizpen batzu...  
*06 45 56 26 39*

12

2 EGUNA

# Donibane Garazi



Nafarroa Behereko bihotzean, Donibane Garazi ezagutu, bere historia, dendak, bere merkatua eta eguna bururatu Errobiko ur lasterrak jauntsiz!



Eskualde honetako saltegi eta aktibitate guztiak atzeman [garazi.bakantzakeuskoz.org](http://garazi.bakantzakeuskoz.org)

Vacances  
en  
Eusko

**Merkatuan eusko billeteekin ordaintzeko**, zure bakantzak euskotan konduetik sosa ateratzen ahal ditu Alimentation Paris aldagunean: *Renaud etorbidea, 35.*

**Urte guzian, merkatua astelehenetan**, eta udan ostegunetan. Laborantza herrikoian lan egiten duten eta Eusko kide diren tokiko ekoizle andana bat badira.

**Hiria ezagutu**. Uztaile-agorrilean, Zitadelako bisita egin (informazioa turismo bulegoan).

**Fabrika Garazi**: arte ofiziale esposaketa lekua. *Zitadelako karrika, 56.*

**Bi Luma**: etxeko apaindura. *Elizako karrika, 13.*

**Gurmantia'k**: euskal ekoizpen eta kalitatezko janari salmenta. *Espainiako karrika, 29.*

**Eztika**: janari biologiko eta ekoizle saltegia. *Zuharpeta karrika, 5.*

**Fromagerie des Aldudes gasnategia**. *Harresi plaza, 2.*

**Xoko ostatu-jatetxean bazkaldu**. *Trinketako plaza, 1 - 05 59 37 39 35*

**Arratsaldean**, Fabien Paleau, erreketako gidak proposatzen dituen ureko aktibitateak entseatu. *06 19 14 27 53*

**Café de la Paix**, kafe, pizzeria jatetxea. *Floquet plaza, 4 - 05 59 37 00 99*

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10

11

# (Egun eder bat Baionan)



Baionan, Euskoa onartzen duten ehun bat denda, ostatu, jatetxe eta eskulangile baino gehiago dira. Nola hautatu? Euskal Herriko hiriburuaren itzuli subjektibo ttiki bat proposatzen dizugu...

Eskualde honetako saltegi eta aktibitate guztiak atzeman [baiona.bakantzakeuskoz.org](http://baiona.bakantzakeuskoz.org)

Vacances en Eusko

**Baionako merkatu estalian itzuli bat egin**, goizero idekia da. Merkatu haundia larunbat goizetan, laborari ekoizle andana batekin. Euskoz paga daiteken Baionako bisita turismo bulegoan.

1

**Boilurrezko gosaria**, Chez Balme-en, merkatu estaliaren barnean.

2

**Gyropode bidezko Baionako bisita gidatua egiten auzartu zaitez**, Gyrozone-Big Basque-ekin. Aurrekontu guztietara egokitutako prezio eta zirkuituak. 06 43 49 80 87

3

**Baionako historia kondatzen duen Euskal museoko bisita egin**. Corsaires karrika, 37 - 05 59 59 08 98

4

**Kouj-en bazkaldu**. Eremaiteko Armeniar sukaldea. Mahain bakar batzu lekuan berean. Pannecau karrika, 53 07 66 39 30 25

5

**Ereman Ono pokē jatetxeko poke bowl bat**, Hawaïeko sukaldea. Mahain bakar batzu lekuan berean. Victor Hugo karrika, 46 - 05 24 33 66 57

6

**Baionako harresietan ibili eta baratze botanikoan, asteartetik larunbatera idekia, 9:00-12:00 / 14:00-18:00.** Kitorik.

7

**Errobi bazterrean oinez edo bizikletez** (hiriak bizikletak uzten ditu zerbizuz librea) ibili eta Ansoteko ordokian paseatu: aintzira, ur bazter, oihan, pentze, etbarretaz baliatu (astelehenetan hetsia). Kitorik.

8

**Patxamama jatetxea**, bidaiatzeko sukaldaritza, tokiko ekoizpenak. Port de Castets karrika, 7 - 05 59 59 11 88

9

**Osagarria jatetxea**, sukaldaritza asmatzailea, tokiko ekoizpenak. Cordeliers karrika, 11 - 05 40 48 08 94

10

**Port neuf hotela**, Xarma haundiko Hotela\*\*, 6 ganbara. Port-Neuf karrika, 44 - 05 59 25 70 88


11

**Basses Pyrénées hotel-jatetxea**, Berezkotasun haundiko hotela\*\*\*\* eta sukaldaritza gastronomikoa. Tour de Sault karrika, 12 - 05 59 25 70 88

12



# Baigorri eta Aldude-ko ibarrak



Baigorri eta Aldudeko ibar ederrak, bertako biztanleen eta artisauen mobilizazio eta sormenari esker, biziki dinamikoak dira. Ezagutzekoak.

Eskualde honetako saltegi eta aktibitate guztiak atzeman [baigorri.bakantzakeuskoz.org](http://baigorri.bakantzakeuskoz.org)

Vacances  
en Eusko

## 1 EGUNA

### Olhaberri interpretazio gunea bisitatu.

Bankako meategien historia ezagutu oinezko ibilaldi baten bidez. *Kitorik.*

### Bankako amuarrain hazkuntza etxaldea bisitatu,

museo ttipia eta akuarioa, amuarrain larruz egin larruki ekoizpenak. *Aldudeko bidea - 05 59 37 45 97 - Kitorik.*

### Alfaro Bar Ostatuan jan.

*Xerrenda karrika - 05 59 37 58 61*

### Lepeder oinezko ibilaldia egin.

Herriko mendixkak ezagutu, urzo kaperak, Kintoa zerria... *4h.*

### Herrian ibili, monumentu historikoa izendatua izan den

eliza erromanikoa eta barnean den Malher oraginoa bisitatu.

### Manexenea hotel-jatetxean jan eta lo egin,

terraza polita eta ibilaldi ttipiak inguruetan.

*Urdos auzoa - 05 59 37 41 68*

### Petricorena denda eta proposatzen dituzten

**erezeta goxoak ezagutu:** Sakari saltsa, tokiko berezitasunak eta artisanalak...

*Zubi erromanikoa - Hirixka - 05 59 37 41 36*

### Etxean Egina eskuz eginiko xaboi eta kosmetika

**ekoizlearekin segitu,** salmenta eta bisitak egingarri aintzinetik deituz. *Hirixka - 05 59 37 93 42*

### Txanogorritxo tartategian bazkaldu Herriko,

*etxeko karrika - 05 59 49 03 88*

### Goicoechea buzingintzako sorkuntza zoragarriak ezagutu.

*RD 918 - 05 59 37 71 30*

### Etxaldeko ekoizpenak erosi, Kaiku Borda tokiko ekoizle dendan.

*lhardokia gunea - 05 59 49 10 64*

## 2 EGUNA



Photo @ Bertrand Lanneau argazki eskubidea

Ferme Xedarrria, Añherre - Circuit 4  
Xedaria etxaldea, Alheira - 4. zikltoa

**Euskal Moneta**  
Cordeliers karrika, 20  
64100 Baiona  
info@euskalmoneta.org  
bakantzak@euskalmoneta.org

**Euskal Moneta**  
20 rue des Cordeliers  
64100 Bayonne  
info@euskalmoneta.org  
euskalmoneta.org  
vacances@euskalmoneta.org

Sorkuntza grafikoa: guenole.fr

